-*Deya* geure euzkeldunen eskubetara eldu orduko, ufian kalian egongo dira liburu bafijak, arazo ori amaituten gagoz-ta.

Lengo abestijak polifak ba-ziran be, bari onek ez tira gitxijago. Idazti edo liburuban euren musikiaz ta gusti dagoz, argi-argi, eztakijezanak ikasi dagijezantzat.

Abestijok Euzkadi'ko eři askotan (Bizkaya'n, Laburdi'n, Nabaŕa'n, Zubero'n, Gipuzkoa'n...) aŕtuta dagoz. Beraz, euzkeldunenak dira, euzkotaŕak soŕtubak eta erabillijak. Eurak aŕtu dabezanak dira Azkue, Salabeři, Donostia'ř abea, Aŕue, Guridi.. ¡Eta mutillak dozak eurok abesti edo kanta polit-samuŕak aŕapetan!

Idazti (liburu) bari onetan, lenguan lez, abesti bakotxak daukaz musikia ta letria. Musikia, len aitatu doguzan euzkotaŕ jakintsubak aŕtuta dago: letria, beste euzkeldun adoretsu batzuk ezaři dautsie abestijoi. ¡Ikusiko dozubez gauza samuŕ-polifak neuŕtitz edo bertso oretan! Zubek dakixuben lez, euzkeldunak oŕ-emen erabilli oi-dauzan abestijen *letria* gazpakua da geyen-geyenetan, eztauko gatz andi-andirik. Oŕegatik, geuk emongo dautzubeguz abestijen musikia bera dan letxe, ezer ukutu-barik, baña *letria*, ez. Lengua kenduta, bařija egin dogu, geyenetarako beintzat. Oŕetara ederto: musika polifaz, letra polifa be. Eta ez pentsau gero geure buruba goraldutiaŕen dirautzubegula ori......

Idazti (liburu) bakotxa eŕial baten salduko da. Bere ;txuria, edeŕa.

Eřijetako euzkeldunak eskatu begijoez dura dabezanak *Euzkeltzale-Bazkuna*'ri, Bidebařietā kalian, 14'gaŕenian, Bilbao'n. Emenguak be bertara juan euron eske.

Idazti edo liburu orixe, ingi (papera) obiagaz eginda, eŕial bitan salduko dogu. Igaz be olakuak egin geuzan, eta ugari saldu be.

Bizkoŕtu, ba, mutillak, eta euzkel-abestijak eskatu.

Diru gitxigaz etxian eukiko dozubez Euzkadi'ko abestirik samuŕ-gozoenak.



*Loyola'taŕ Iñaki-deunaren ikastetxe ta txadona (Azpetia'n).*

## ABEŘKOYAK

Begira nago, begira,
Ama on eŕukaři bateri;
gaxuak negaŕez dio
deitzen bere semeari;
"¡Ene seme lagundu nazu!
lagundu bizitzen!"
bañan seme eskaŕgabeak
ez dio erantzuten,
Euzkadi zenbait euzkotaŕek
¡ai 'ez du maitatzen,
Ama ez maitatze ori...
¿nola da ulertzen?

* * *

Nere biotza Ama,
Jaun-goikua'ren uřen
zeuri oso osorik,
dirut nik eskeintzen.
¡Ai nor litzaken euzkel
-biotz danen jabe!
¡zeure mende guziak
jaŕiko nituke!

*Tene.*

## "Euzko-Deya"ren ipuñak

### JON

Jon ogei urtedun mutilla da. Gorputzez, sendua ta aŕpegiz, edeŕa.

*Altza* basetxeko semia, seme bakaŕa da.

Jaun-goikua ta guraso-maitetasunez aziťa, Jon mutil zindua, mutil on-ona da.

Jayo zan etxion, *Altza* basetxe zaŕan bixi da guraso maite-kutunakaz. Bere biaŕa baseřitaŕena da, bera be baseřitaŕ utz-utza da-ta

*Altza* basetxia Euzkadi'ko eři kozkoŕan dago, mendi-gan-ganian. Basetxe-inguruban, **soluak** eta zugatzak (arboliak). Bertatik uřun, bitxabala (**kaŕeteria**).

Goiz-goxetik jagi ta solora juaten da geure mutilla. Eguzki dagonian, bere apa **beruak** lepuan aŕtzen dauz: eurija danian, **zapaŕada galantak**.

Goyian sukuba eguberdijan lapikokua ta gabian esnia ta talua, pozik bixi-da Jon zindua, ezeren biaŕik eztaula.

* * *

Jon'ek etxia dagon mendiťik bera beste basetxe polifa dago. *Loidi* ixena dauna. Basetxe edeŕ sendua, aŕizkua, atadi zabal zabalduna.